

# 6 mantangorri

## IRAKURRI, ETA ONDO PASA!



### LIBURUAK

### Burgi bilduma

Hartz maitagarria da Burgi, lasaia, otzana, lagunen laguna. Handia bezain maitagarria eta bihotz onekoa da, eta, gurasoez gain, lagun ugari ditu: ardiak, untxia, hontza, behia...

Lagun horiek guztiak, baina, bereziki, Burgi hartza da Burgi bildumako protagonista nagusia. Bildumako lehen hiru liburuak argitaratu berri ditu Ibaizabal argitaletxeak, euskaraz: *Burgik besarkada bat behar du*; *Lasai, Burgi* eta *Burgi eta pijama festa*.

Liburu txikiak eta laukiak dira, eta kartoi sendoko orrialde biribilduak dituzte. 3 urtetik gorako haurrentzako liburuak dira, eta letra larriz idatziak daude hartzatxoaren abenturak. Istoriak apaintzeko, berriz, marrazki koloretsu eta alaiak egin ditu egileak.

Udaberriko goiz eder batean, jaiki, eta besarkada goxo baten premia duela ohartu da Burgi. Kobazulotik irten da, hartz besarkada goxo baten bila. Horixe da lehen liburuaren muina.

*Lasai, Burgi* liburuan, berriz, larritu egin da hartza, aitak oparitu berri dion artilezko txano ederra apurtu egin baitzaio. Oparitu orduko, kalera irten da, lagunei erakusteko irrikaz. Jolasean, ordea, erabat desegin zaio, eta beldur da aitarengana joan eta gertatutakoa kontatzeko.

Hirugarren liburuan, berriz, untxiaren etxean egingo duten pijama festari buruz hitz egiten da. Berez, Burgi gonbidatu du untxiak, baina horrek beste hainbat lagun gonbidatu ditu bidean. Sartuko ote dira denak untxiaren etxe txikian?

**Testua eta marrazkiak:**  
David Melling.



**Itzulpena:** Miren Agur Meabe.

**Adina:** 3 urtetik aurrera.

**Bilduma:** Burgi.

**Argitaletxea:** Ibaizabal.

### DENBORA-PASAK



### 1. Kopiatu laukiz lauki

Ziur oso iaioa zarela marrazten. Ea, erakutsi zure abilezia. **Marraztu eta margotu sagua, hutsik dagoen laukian.**

### 2. Hitzak atzekoz aurrera

Ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerreara idazten daki Sarak. **Bilatu ezkerreko zutabeko hitzak eskuineko zutabean.**

<b>1</b>	<b>urtemuga</b>	<b>a</b>	<b>isas</b>
<b>2</b>	<b>zozketa</b>	<b>b</b>	<b>elazeniz</b>
<b>3</b>	<b>beharrezko</b>	<b>c</b>	<b>irragziereb</b>
<b>4</b>	<b>sasi</b>	<b>d</b>	<b>atekzoz</b>
<b>5</b>	<b>zinezale</b>	<b>e</b>	<b>okzerraheb</b>
<b>6</b>	<b>bereizgarri</b>	<b>f</b>	<b>agumetru</b>